



## 4/2025. AKTA OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2025eko apirilaren 30ean, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal

Bertaratutakoak: Argi Yeregui Egaña  
Aitor Manterola Garate  
Marina Bidasoro Arozena  
Asier Arakistain Alberdi  
Maite Egaña Larrañaga  
Itziar Etxabe Etxabe  
Unai Larrañaga Uranga  
Nerea Goiria Mendiola  
Jose Miguel Antia Albizu  
Joxe Mari Azkue Castillo  
Ainhoa Illarramendi Azkue  
Iker Mardaras Arrieta  
Xabier Odriozola Etxaniz  
Ander Olaizola Esnal  
Mireia Aranbarri Ieregi  
Duñike Agirrezabalaga Ugarte

Idazkaria: Alexander Marañon Muñoz

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Seirak eman dute eta hasi ingo gea. Arratsalde on eta ongi etorri Ohiko Osoko Bilkurara.

### ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

#### 1.-AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA.

(2/2025 zenbakia. 2025.02.27)

(3/2025 zenbakia. 2025.03.27)

Otsaileko eta Martxoko Ohiko Osoko Bilkuretako aktak onartu dituzte aho batez.



## 2.- IRIZPENAK.

### 2.1.- OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIOKO UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA

2025KO APIRILAREN 23KO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIO ORDENANTZAREN ALDAKETARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO.

Alkatetzak, 2025eko apirilaren 16ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, Oinezkoen eta Ibilgailuen Zirkulazioari buruzko Udal Ordenantza aldatzeko espedientea hasteko agindu zuen.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 130. artikulua eskatzen du indarrean dauden arauak aldizka berrikustea, erregulazio onaren printzipioetara egokitzeko eta egiaztatzeko indarrean dauden arauak zenbateraino lortu dituzten aurreikusitako helburuak, eta arau horietan ezarritako kostua eta kargak justifikatuta eta behar bezala kuantifikatuta zeuden.

Kontuan hartu da oinezkoen eta ibilgailuen zirkulaziorako udal-ordenantza aldatzeko, ordenantza onartzeko erabilitako prozedura bera erabili behar dela, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duenak, 56. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontuan hartu da Udal honek berrikuspena egin behar duela Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan aurreikusitako erregulazio onaren

DICTAMEN DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DE 23 DE ABRIL DE 2025 SOBRE LA APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA MUNICIPAL DE CIRCULACIÓN DE PEATONES Y VEHÍCULOS DE ZUMAIA

Considerando que por la Alcaldía se ordenó mediante Resolución de Alcaldía de fecha 16 de abril de 2025 la incoación de expediente para proceder a la **modificación** de la **Ordenanza** municipal de circulación de peatones y vehículos.

Considerando que el artículo 130 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas -LPACAP-, exige revisar periódicamente las normas vigentes para adaptarlas a los principios de buena regulación y para comprobar la medida en que las normas en vigor han conseguido los objetivos previstos y si estaba justificado y correctamente cuantificado el coste y las cargas impuestas en ellas.

Considerando que para la **modificación** de la **Ordenanza** municipal de circulación de peatones y vehículos debe seguirse el mismo procedimiento que para su aprobación, en virtud de lo previsto en el artículo 56 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local -TRRL-.

Considerando la necesidad de que por este Ayuntamiento se proceda a la revisión conforme a los principios de buena regulación (*necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguri-*



printzipioen arabera (beharra, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia), haren alderdi partzial batzuk arautu behar baitira: autokarabaten aparkalekua arautzea, kale bateko zamalaren ordutegiak aldatzea eta Txomin Agirre kaletik zerbitzu diskrezionaleko autobusetatik sartzeko debekua.

Ikusi da oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioari buruzko udal-ordenantza aldatzeko proiektuaren testu artikulatua.

Ikusi da Idazkaritzak 2025eko apirilaren 16an emandako txosten juridikoa, espedientean jasota dagoena.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraiki.

Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, ez da beharrezkoa izango osoko bilkuraren beste erabaki bat hartzea. Horretarako, idazkariak hori egiaztatzen duen ziurtagiria emango du, eta hasierako erabakia behin betikotzat joko da automatikoki.

Alkatetzak proposatuta, eta Idazkaritzaren txostenekin bat etorritik, eta eztabaidatu eta bozkatu ondoren, LURRALDEKO Informazio Batzordeak, \_\_\_ botoekin, aldeko irizpena eman du, eta honako hau aurkeztu dio Udal Osoko Bilkurari:

#### ERABAKI-PROPOSAMENA

LEHENA.- Hasierako onarpena ematea oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioari buruzko udal-ordenantzaren aldaketari.

*dad jurídica, transparencia y eficiencia*) previstos en el [artículo 129](#) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, por cuanto es necesaria la regulación de ciertos aspectos parciales de la misma: la regulación del aparcamiento de autocaravanas, la modificación de los horarios de carga y descarga de una calle y la prohibición de acceso a través de la calle Txomin Agirre por autobuses de servicio discrecional.

Visto el texto articulado del proyecto de **modificación** de la **Ordenanza** municipal de circulación de peatones y vehículos.

Visto el Informe jurídico emitido por la Secretaría con fecha 16 de abril de 2025, obrante en el expediente.

Atendido al procedimiento legalmente previsto en el [artículo 49](#) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local -LRBRL-.

Considerando que en el supuesto de que no se presenten reclamaciones ni sugerencias, no será necesaria la adopción de nuevo acuerdo plenario, extendiéndose a tales efectos certificación acreditativa de tal extremo por la Secretaría y entendiéndose elevado automáticamente a definitivo el acuerdo hasta entonces inicial.

A propuesta de la Alcaldía y de conformidad con los informes de la Secretaría, y sometido a debate y votación, la Comisión Informativa de TERRITORIO, por \_\_\_ votos, dictamina favorablemente elevar al Pleno Municipal la siguiente,

#### PROPUESTA DE ACUERDO

PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza municipal de circulación de peatones y



Honela dio, hitzez hitz:

1. Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioari buruzko udal-ordenantzaren honako artikulua hauek aldatu dira, idazketa berri baten bidez:

16. artikulua

1.- Udal ordenantza bidez arautuko da udalerriko leku jakin batzuetan ibilgailuak aparkatzeko denbora-muga.

2.- Debekatuta dago bide publikoetan ibilgailu motordunetatik bereizitako mota guztietako karabana, atoi eta erdi-atoirik aparkatzea; bai eta autokarabanarik, ibilgailu artikulaturik, kamioirik, autobusik, traktoririk, edo obra, zerbitzu eta nekazaritzarako ibilgailurik ere, eta oro har 3.500 kg-tik gorako pisu edo masa baimendua duen edozein ibilgailurik, edota zabalera nahiz luzerako neurrietan aparkalekuetarako gordetako perimetroa gainditzen duen ibilgailurik.

Ibilgailu horiek horretarako baimendutako toki eta aldietan bakarrik aparkatu ahal izango dute, edo baimendutako ordutegian zama lanak egiteko.

3. Uztailaren 30eko 396/2013 Dekretuaren 81. artikuluari jarraiki, Autokarabana gunetik kanpo, hirigune osoan, kanpaketa librea debekatuta dago.

4. Geltokiko industrialdean autokarabanentzako aparkaleku espezifiko bat gaitu da, behar bezala seinaleztatua eta doakoa. Hala ere, udalak doakotasun hori kendu ahal izango du; horretarako, emandako zerbitzuagatik erabiltzaileak ordaindu beharko lukeen tasa arautzeko ordenantza fiskala onartu ahal izango luke.

Autokarabanen gehieneko aparkaldia astean 2 gauekoa da —2 egun jarraituak

vehículos, que es del siguiente tenor literal:

1. Se modifican mediante nueva redacción los siguientes artículos de la **Ordenanza** municipal de circulación de peatones y vehículos:

Artículo 16

1.- La limitación temporal del estacionamiento de vehículos en determinadas zonas del municipio será objeto de regulación específica mediante ordenanza municipal.

2.- Queda prohibido estacionar en las vías públicas, caravanas, remolques y semirremolques de todo tipo separados de vehículos de motor; así como autocaravanas vehículos articulados, camiones, autobuses, tractores, vehículos concebidos para obras, servicios y labores agrícolas, y en general, cualesquiera vehículos cuyo peso o masa máximo autorizado exceda de 3.500 Kg, o que por sus dimensiones excedan en anchura o largura el perímetro reservado para las plazas de aparcamiento.

Estos vehículos sólo podrán estacionar en los lugares y períodos autorizados para ello, o para efectuar tareas de carga y descarga dentro del horario autorizado.

3. De conformidad con el artículo 81 del Decreto 396/2013, se prohíbe la acampada libre fuera de la Zona de Servicios de Autocaravanas en todo el núcleo urbano.

4. Se habilita en la zona industrial de la Estación un aparcamiento específico debidamente señalizado para autocaravanas gratuito. No obstante, el ayuntamiento se reserva la potestad de eliminar la gratuidad y aprobar una ordenanza fiscal que regule la tasa que las personas usuarias deberán satisfacer por el estacionamiento realizado.

El tiempo máximo de estacionamiento de las autocaravanas en el citado



edo jarraitu gabeak—. Gune honen helburua turistikoa da, eta ez da nahi desegoki erabiltzea. Gehieneko 2 gaueko egonaldia honela kontatuko da: iritsitako eguneko 07:30etan hasiko da eta hirugarren eguneko 20:00etan bukatuko da. Bakar-bakarrik ezinbesteko edo behar-beharrezko kasuetan gainditu ahal izango da baimendutako gehieneko egonaldiaren iraupena, eta betiere aurretik Udaltzaingoa edo dagokion organoaren baimena izan beharko dute.

Baimenik gabe aparkaldiko gehieneko denbora gaindituz gero, horri dagokion zigorra ekarriko du, eta ibilgailua erretiratzea ere ekar dezake.

5. Aurreko puntuko erregulazioa aplikatzeko, auto-karabanak honela definituko dira: bizi-toki-ibilgailu gisa homologatutako ibilgailuak, ur-andela eta komuna dituztenak. Hauexek dira hori berresten duten fitxa teknikoaren zenbakiak (Ibilgailuen Arau Orokorraren II eranskina) :

- 2448 (bizitoki -furgoneta)
- 3148 (bizitoki-ibilgailu mistoa)
- 3200 (3.500 kg edo gutxiagoko BGM duen zehaztu gabeko autokarabana)
- 3248 (3.500 kg edo gutxiagoko BGM duen bizitoki-autokarabana)
- 3300 (3.500 kg baino gehiagoko BGM duen zehaztu gabeko autokarabana)
- 3348 (3.500 kg baino gehiagoko BGM duen bizitoki-autokarabana)

Horiek dira Geltokiko industrialdean seinaleztatutako autokarabanentzako aparkalekuan aparkatu ahal izango duten ibilgailu bakarrak.

Autokarabanak zoladuran markatutako espazioaren mugak errespetatuz aparkatuko dira beti.

6. Erabiltzaileek autokarabanentzako aparkalekua utzi beharko dute baldintza

aparcamiento específico, será de 2 noches continuadas o no, en el plazo de una semana. Así se fortalece la función turística de la zona evitando un uso inadecuado de la misma. El tiempo máximo de estancia de 2 noches comenzará a contar desde las 07:30 horas del día de llegada y finalizará a las 20:00 horas del tercer día de estancia. Solamente en caso de fuerza mayor o necesidad y previa autorización de la Policía Local o del órgano correspondiente, se podrá superar este tiempo máximo de estancia permitido.

La superación del tiempo máximo de estacionamiento sin permiso implicará la sanción correspondiente, pudiendo además conllevar la retirada del vehículo.

5. A los efectos de aplicación de la regulación del punto anterior, se definen como autocaravana los vehículos homologados como vehículo vivienda. Los números de la ficha técnica de los vehículos reconocidos a tal efecto son: (Anexo II del Reglamento General de Vehículos):

- 2448 (furgón vivienda)
- 3148 (vehículo mixto vivienda)
- 3200 (autocaravana sin especificar de MMA menor o igual a 3.500 Kg.)
- 3248 (autocaravana vivienda de MMA menor o igual a 3.500 Kg)
- 3300 (autocaravana sin especificar de MMA mayor a 3.500 Kg)
- 3348 (autocaravana vivienda de MMA mayor de 3.500 Kg)

Esos son los únicos vehículos que podrán estacionar en el aparcamiento para autocaravanas señalado en la zona industrial de la Estación.

Las autocaravanas estacionarán respetando en todo momento las delimitaciones del espacio marcado en el pavimento.

6. Las personas usuarias deberán dejar el estacionamiento para autocaravanas



higieniko onenetan erabili ondoren, inolako zabor edo hondakinik gabe.

Berariaz debekatzen da edozein ibilgailu mota garbitzea edo behar ez bezala edo ezarritakoaz bestelako beste edozein erabilera egitea. Arau hori urratuz gero, zehapena jarriko da.

65. artikulua.

Hiri barnean, guztiz debekatzen dira honako pisu eta neurri hauek gainditzen dituzten ibilgailuen zirkulazioa eta aparkalekua: Pisan, 10.000 kgtik gorako ibilgailuak; luzeran, 10 m-ko luzeratik gorako ibilgailuak; zabaleran, 2,5 mko luzeratik gorako ibilgailuak, eta altueran, 3,5 mko luzeratik gorako ibilgailuak.

Era berean, debekatuta dago eskatu ahalako zerbitzuko autobusak eta minibusak zirkulatzea eta aparkatzea, Zubi Txikiko gasolindegitik Txomin Agirre kalerantz. Arau hori urratuz gero, zehapena jarriko da.

76. artikulua

Hauek dira arau-hauste arinak:

—Kargatzen nahiz deskargatzen ari diren materialak bide publikoan uztea.

—Zamalanak egitean zarata edo zikinkeria gehiegi ateratzea.

—Pasabide lizentzia duen aldea gaizki seinaleztatzea.

—Pasabide lizentzia duten aldeetara sartu ahal izateko osagai behin-behineko nahiz mugikorak jartzea, horretarako behar den baimena izan gabe.

—Patin nahiz antzeko gailuez ibiltzea lastertasuna oinezkoarenari. egokitu gabe edo kirola eginez, horretarako seinaleztaturiko aldeetatik kanpo.

—62. artikuluan aurreikusitako zirkulazio-baldintzei kasurik egin gabe ibiltzea

después de su uso en óptimas condiciones higiénicas, sin ningún tipo de basura o residuos.

Se prohíbe expresamente el lavado de cualquier tipo de vehículo o cualquier otro uso indebido o distinto al estipulado. La infracción a esta norma será objeto de sanción.

Artículo 65.

Se prohíbe la circulación, así como el estacionamiento, dentro del casco urbano de vehículos que superen un peso y dimensiones máximas de: 10.000 kg, 10 metros de longitud, 2,5 metros de anchura y 3,5 metros de altura.

Así mismo, se prohíbe la circulación y el estacionamiento de autobuses y minibus de servicio discrecional, a partir de la gasolinera situada en Zubi Txiki, en dirección a Txomin Agirre kalea. La infracción a esta norma será objeto de sanción.

Artículo 76.

Son infracciones leves:

—Depositarse materiales objeto de carga y descarga sobre la vía pública.

—Realizar las tareas de carga y descarga produciendo ruido y/o suciedad excesivas.

—Señalizar incorrectamente la zona de reserva autorizada por la licencia de vado.

—Colocación de elementos provisionales o móviles para facilitar el acceso a las zonas de reserva autorizadas por la licencia de vado sin la preceptiva autorización.

—Transitar sobre patines o aparatos similares sin acomodar la marcha al peatón o con carácter deportivo fuera de las zonas señalizadas en tal sentido.

—Circular las bicicletas sin atender a las condiciones de previstas en el artículo 62.



bizikletak.

—Motor-bizikletek nahiz motorrek bizikletetarako aparkalekuak okupatzea.

—Zamalanak egitea ezarritako zona eta ordutegietatik kanpo, horretarako nahitaezkoa den baimenik gabe. (\*1428/03 Legea, 16. art.)

— Gelditzea debekatuta dagoen zonak okupatuz, zamalanak egitea. (\*1428/03 Legea, 16. art.)

— Zamalanak egitea ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa oztopatuz. (\*1428/03 Legea, 16. art.)

— Pasabidearen titularrak edo berak baimendutako pertsonak ibilgailua erreserbazonan aparkatzea. (1428/03 Legea, 94.2 f art.)

— Ibilgailu motordunak aparkatzea espaloietan, bizikleta-bideetan, oinezkoen eta bizikleten pasaguneetan. (1428/03 Legea, 94.2 e art.)

— Gauetz bizikletaz ibiltzea ez fokurik ez distiragailurik gabe. (18/2009 Legea, 65.3 eta 65.4 e art.)

— Autokarabanak aparkatzea ordenantza honen 16.4 artikuluan xedatutakoa urratuz, betiere arau-haustek bide publikoa oztopatzen ez badu.

— Arau-hauste arintzat joko da 16.5 artikuluan ezarritako debekua hautsiz aparkatzea.

— Arau-hauste larria izango da autokarabanak aparkatzea ordenantza honen 16.4 artikuluan xedatutakoa urratuz, betiere arau-haustek bide publikoa oztopatzen badu.

— Arau-hauste larria izango da zaborra edo hondakinak botatzea, baita edozein ibilgailu mota garbitzea edo autokarabanentzako aparkalekuan ezarritakoa ez den beste edozein erabilera desegoki, ordenantza honen 16.6 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioari buruzko Udal Ordenantzaren II. eranskinaren testu hau aldatzen da:

—Ocupar los aparcamientos para bicicletas por parte de ciclomotores o motocicletas.

—Realizar tareas de carga y descarga fuera de las zonas y horario establecido sin la preceptiva autorización. (\*Art 16 1428/03)

— Realizar tareas de carga y descarga ocupando zonas de parada prohibida. (\*Art 16 1428/03)

— Realizar las tareas de carga y descarga obstaculizando la circulación de vehículos y peatones. (\*Art. 16 1428/03)

— Estacionar el vehículo en la zona de reserva por el titular del vado o personas por él autorizadas. (\*Art. 94.2f 1428/03)

— Estacionar vehículos motorizados sobre la acera, vías ciclistas, pasos para peatones y para bicicletas. (\*Art. 94.2e 1428/03)

— Circular en bicicleta de noche sin foco ni reflectante. (\* Art. 65.3 65.4e Ley 18/2009)

— El estacionamiento de autocaravanas contraviniendo lo dispuesto en el artículo 16.4 de la presente Ordenanza, siempre que la infracción no suponga obstaculización de la vía pública.

— Se considerará infracción leve el estacionamiento contraviniendo la prohibición establecida en el artículo 16.5

— Se considerará infracción grave el estacionamiento de autocaravanas contraviniendo lo dispuesto en el artículo 16.4 de la presente Ordenanza siempre que la infracción suponga obstaculización de la vía pública.

— Se considerará infracción grave depositar basura o residuos, así como el lavado de cualquier tipo de vehículo o cualquier otro uso indebido o distinto al estipulado en el aparcamiento para autocaravanas, de acuerdo a lo establecido en el artículo 16.6 de la presente Ordenanza.

2. Se modifica el siguiente texto del Anexo II de la **Ordenanza** municipal de circulación de peatones y vehículos.



*Eribera kalean, banaketa egiteko ordutegia, astelehenetik larunbatara goizeko 9:15etatik 12:00ak bitartekoa izango da*

*En la calle Eribera el horario de reparto será de 9:15 a 12:00 horas de la mañana los días laborables y sábados mañana.*

**BIGARRENA.-** Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal honetako iragarkitaulan eta udalaren webgunean argitaratzea, herritarrek egoki irizitako erreklamazioak eta/edo iradokizunak aurkez ditzaten 30 egun balioduneko epean, Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. 49 TAOAL).

SEGUNDO.- Publicar el acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento, en la web municipal, al objeto de que durante el plazo de 30 días hábiles, contados a partir del día siguiente al de publicación en el Boletín Oficial, la ciudadanía pueda presentar las reclamaciones y/o sugerencias que consideren oportunas (art. 49 LRBRL).

**HIRUGARRENA.-** Idazkaritzak aurkeztutako erreklamazioei eta iradokizunei buruzko txostena egingo du, eta Osoko Bilkurari igorriko dio dagokion baiepen- edo ezespen-proposamena, bai eta Ordenantzaren aldaketaren behin betiko onespenera ere.

TERCERO.- Las reclamaciones y sugerencias presentadas serán informadas por la Secretaría, que elevará al Pleno la propuesta de estimación o desestimación que proceda y de aprobación definitiva de modificación de la Ordenanza.

**LAUGARRENA.-** Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, Oinezkoen eta Ibilgailuen Zirkulazioari buruzko Udal Ordenantzaren aldaketa behin betiko onartutzat joko da. Horretarako, Alkateak prozedura amaitzeko eta indarrean jartzeko behar diren izapideak aginduko ditu.

CUARTO.- En caso de no presentarse reclamaciones ni sugerencias, se entenderá aprobada definitivamente la modificación de la **Ordenanza** municipal de circulación de peatones y vehículos, a cuyo efecto por la Alcaldía se ordenarán los trámites necesarios para la conclusión del procedimiento y su entrada en vigor.

**BOSGARRENA.-** Behin betiko onspenerabakia edo, hala badagokio, hasierako onspenerabakia, automatikoki behin betiko onarpenera eramana, eta oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioari buruzko udal-ordenantza aldatzeko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

QUINTO.- Que el acuerdo de aprobación definitiva o, en su caso, el acuerdo de aprobación inicial elevado automáticamente a aprobación definitiva, junto con el texto de modificación de la **Ordenanza** municipal de circulación de peatones y vehículos, se publique en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Zumaia, 2025ko apirilaren 23an.  
LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDEBURUA  
Argi Yeregui



IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bigarren puntua: irizpenak. Lendabizikoa OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIOKO UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA. Alex, komentatuko diguzu piska bat?

ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ:

Bai, esandakoa, suposatzen dut jada batzordean, bueno ba dokumentazioa eta guztia jaso zenutela eta bueno bertan azalpenak eman zirela, baina bueno, Udal gobernuaren aldetik, alkatetzaren aldetik, ba bueno, jaso zan eskari bat ordenantzaren hainbat aspekturen inguruko, bueno pues arauketari ekiteko hutsuneak zeudelako egun indarrean dagoen ordenantzan. Zehazki autokarabanen aparkaleku arautzea, kale bateko zamalanen ordutegiak aldatzea eta Txomin Agirre kaletik zerbitzu diskrezionaleko autobus pribatuentzako autobusetatik sartzeko debekua. Bai? Orduan, hori dela eta, proposatzen zaizuena da hiru artikuluko zehatz batzuen aldaketa edo batez ere, bueno ea artikuluko batzuetan gehitzearena, testu batzuk, ez?

Zehazki 16. artikuluan planteatzen dena da, bueno, apur bat arautzea autokarabanentzako geltokiko industrialdean planteatzen den aparkaleku horren izaera eta arauketa nahiko orokor bat eta ez oso xehatua. Baizik eta bueno pues kontutan izanda, momentuz era probisionalean dagoen gune bat da eta bihar-etzi beharrezkoa ikusiko balitz edo konponketa berriak edo zerbitzu berriak eskainiko balira, pues bueno hori guztia arautuko litzateke. Hortaz, hor 16. artikuluan planteatzen zaizuena da geltokiko industrialdean autokarabanentzako aparkaleku espezifiko bat gaitu da behar bezalakoa eta doakoa.

Halere, Udalak doakotasun hori kendu ahal izango du horretarako emandako zerbitzuagatik erabiltzaileak ordaindu beharko lukeen tasa arautzeko ordenantza fiskala onartu ahal izango luke. Autokarabanen gehieneko aparkaldia astean bi gauekoa da, bi egun jarraituak edo jarraitu gabeak. Gune honen helburu turistikoa da eta ez da nahi desegoki erabiltzea. Hortaz gehieneko bi gaueko egonaldia honela kontatuko da: iritsitako eguneko zazpi eta erdietan hasiko da eta hirugarren eguneko zortzietan bukatuko da. Bakar-bakarrik ezinbesteko edo behar-beharrezko kasuetan gainditu ahal izango da baimendutako gehieneko egonaldien iraupena eta betiere aurretik udaltzaingoaren edo dagokion Udalaren baimena izan beharko da. Baimenik gabe aparkatzeko gehieneko denbora gaindituz gero, horri dagokion zigorra ekarriko du eta ibilgailua erretiratzea ere ekar dezake. Bai?

16.5 artikuluan zehazten dena da zer da autokarabana bat. Batzutan arazoak ekartzen du. Ta hartaz bueno hor ibilgailuen arau orokorraren bigarren eranskinean, Estatuko legetik eratortzen dena, pues hor arautzen dira zeintzuk diren autokarabana kontzeptu horren baitan sartzen diren ibilgailu motak. Orduan hori inportantea zan ere arautzea zeintzuek aparkatu ahal zuketan hor. Eta seigarren artikuluan egiten dena da, bueno apur bat erabiltzaileek hori behar den moduan erabiltzeko, zera, makinak ez eragiteko eta topatu duten



moduan ere uztea gunea. Bai?

65. artikuluan egiten dena da, esandakoa, udan batez ere arazo nahiko eragiten du hor, ba bueno, autobusen pasabide hori, bueno barneraino sartzen dira eta hortaz, ba bueno aipatu zan o ezinbestekoa zela hori ere arautzea eta orduan planteatzen dena da, artikulua horretan egiten dena da, debekatzen dira ibilgailu batzuk zirkulatzen hiritik: pisu handikoak, kamioi haundiak eta abar. Eta gehitzen dena da, era berean, debekatuta dago eskatu ahalako zerbitzu autobusak autobuses de servicios discrecionales gazteleraz eta minibusak zirkulatzea eta aparkatzea zubi txikiko gasolindegitik Txomin Agirre kalerantz. Arau hori urratuz gero, ba zehapena jarriko da.

76. artikuluan egiten dena da, arestian aipatu arau-hauste horiek bertan ere txertatu, batez ere, autokarabanaei dagokionez. Eta hor ba mugatzen dira ba zeintzuk diren arau-hauste arinak, arau-hauste larriak eta abar.

Eta bukatzeko, planteatzen den azkeneko aldaketa da, hori, karga eta deskarga ordutegia Eribera kalean moldatzearena. Gauza hauek betiere ordenantzetan saiatu gara ekiditzen, baina bueno ya dagoenez jarrita ordutegi bat, ze azkenean ordutegiak seinale batekin jartzen dira eta listo. Askotan gertatzen dena da gehiegi arautu nahi izate horrek eragiten du gauzak aldatzerako garaian ordenantza aldatu behar izatea. Baina bueno, horrela hartu zan erabakia bere garaian eta orduan ba bueno, pues ordutegi hori aldatzea planteatzen da. Ordenantza aldaketa bat denez, badakizue hasierako onarpena onartuko dugula gaur. Publikatu behar da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 30 egun balioduneko epean. Ez baldin badago alegaziorik automatikoki onartuko litzateke eta ya publikatuko litzateke ya testu osoa boletinean eta indarrean jarriko litzateke. Orduan hori da.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko, Alex. Zerbait komentatzeko? Bai.

XABIER ODRIOZOLA ETXANIZ:

Kaixo, arratsalde on. Bueno guk Zumaiako oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioaren ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena emateko puntu hontan ba EAJ/PNV taldeak abstentzioa bozkatuko du, ba ondoren aipatuko ditudan arrazoiengatik.

Hasteko, lehen ere egin genuen bezala, geltokiko industriaguneko autokarabanentzako aparkalekua, hau da, Urola plaza deitzen dioguna, iruditzen zaigu zumaiarrentzat aparkalekua izan beharko lukeela. Gehienbat, datorrelako urbanizazioa eta Estazioko etxeetatik gertu baitago.

Bestalde, ordenantzan, aipatu duzun bezala, laugarren puntuan geltokiko industriagunearen autokarabanentzako aparkaleku espezifiko bat izango denez, Urola plazakoa, guk proposatzen duguna da zumaiarrok udararen aurretik eta ondoren asteburu eta jaiegunetan eta udaran egun guztietan OTA



ordaintzen dugun bezala, ba gune honetan OTA garaian ordainketa bat egin beharko luketela autokarabanakoek. Zumaiarrak egiten dugun bezala. Bukatzeko, emandako arrazoiengatik eta egindako proposamenak kontutan hartuko direlakoan, EAJk abstentzioa bozkatuko du.

#### IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Duñike, zerbait komentatzeko? Bale.

Bueno, argitze aldera e, Urola plaza ez dugu aipatzen ordenantzan eta Urola plaza ez da kokatzen arautu nahi dugun gune hortan. Da lkatz plaza, justo ibaien ondoan dauden 12 horiek. Egunen batian Urola plaza edo beste nonbait arautzen baldin bada bat ta ipintzen baldin badia zerbitzu guztiak autokarabanak instalatzeko, noski, dohainekoa ezingo litzateke izan, baizik eta zerbait ordaintzekua. Baino ez dagoela Urola plazan, bale?

Aldeko bozkak? Abstentziuak? Bale ba 10 bozka aldekoak eta sei abstentzioak. Beraz, behin-behineko aldaketa onartuta.

**Aldeko botoak: 10 boto (9 EH BILDU eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 6 EAJ-PNV**

#### ERABAKIA:

OINEZKOEN ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIOKO UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA onartzea.

2.2- ZUMAIAKO HERRIAN 18 ETA 35 URTE BITARTEKO ADINA DUTEN GAZTEEI ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA.

**2025EKO APIRILAREN 23KO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO HERRIAN 18 ETA 35 URTE BITARTEKO ADINA DUTEN GAZTEEI ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETEI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO**

**DICTAMEN DE LA COMISIÓN DE LA ORDENANCION DEL TERRITORIO DE 23 DE ABRIL DE 2025 SOBRE LA APROBACION INICIAL DE LAS MODIFICACIONES DE LA ORDENANZA REGULADORA POR LAS QUE SE ESTABLECE LA CONCESION DE AYUDAS PARA EL ALQUILER DE VIVIENDA A JOVENES DE ENTRE 18 Y 35 AÑOS EN EL MUNICIPIO DE ZUMAI.**

#### AURREKARIAK

1.- 2017. Urtean, Zumaiako Udalak 18 eta 35 urte bitarteko gazteei etxebizitzak alokatzeko

#### ANTECEDENTES

1.- En el año 2017, el Ayuntamiento de Zumaia aprobó la primera ordenanza



diru-laguntzak emateko ordenantzari lehenengo onarpena eman zion. Ordudanik, hainbat aldaketa egin dira diru-laguntza horien araubidean.

2.- 2024ean hainbat aldaketa txertatu ziren ordenantzan. Horien artean, Pertsona Fisikoen Errenta Aitorpena NISAE bidez eskuratzea txertatzearena.

3.- Ikusi da, NISAE bidez beste hainbat informazio eskuratzeak ere, bai herritarrentzat bai Zumaiako Udalarentzat, laguntza hauek eskatu eta eskaerak kudeatzeko erraztasuna eragin dezakeela.

4. Ondorioz, 8. Artikulua aldatzea proposatzen da.

reguladora de la ayudas para el alquiler a ayudas a jóvenes de entre 18 y 35 años. Desde entonces, se han introducido diversas modificaciones en el régimen de estas subvenciones.

2.- En el año 2024 se introdujeron diversas modificaciones en la ordenanza. Entre ellos, el de incluir la obtención de la Declaración de la Renta de las Personas Físicas a través de NISAE.

3.- Se ha observado que la obtención de otra información a través de NISAE, puede facilitar la presentación de las solicitudes y gestionar estas ayudas, tanto para la ciudadanía como para el Ayuntamiento de Zumaia,

4. En consecuencia, se propone modificar el artículo 8.

#### IRIZPENA

Ondorioz, 2025eko apirilaren 23ko Lurralde Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: 6 (EH BILDU 2 , EAJ-PNV 3, PSE 1)

Aurka:

Abstentzioa:

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

LEHENA.- ZUMAIKO HERRIAN 18 ETA 35

#### DICTAMEN

En consecuencia la Comisión Informativa de "Lurralde" de fecha 23 de abril de 2025 tras la siguiente votación:

A favor: 6 (EH BILDU 2 , EAJ-PNV 3, PSE 1)

En contra:

Abstención:

Acuerda ESTIMAR el presente dictamen de conformidad al artículo 135.3 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, y someterlo si procede a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá adoptar el acuerdo con el quórum de la mayoría simple de sus miembros presentes establecido en el art. 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, la siguiente PROPUESTA:

PRIMERO.- Aprobar inicialmente la



URTE BITARTEKO ADINA DUTEN GAZTEEI ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DUEN ordenantzaren, - zeinaren testu osoa I Eranskin gisa txertatzen den- aldaketari hasierako onespina ematea. BIGARRENGOA: Ordenantzaren hasierako onespinen iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

modificación de la ORDENANZA REGULADORA POR LAS QUE SE ESTABLECE LA CONCESIÓN DE AYUDAS PARA EL ALQUILER DE VIVIENDA A JÓVENES DE ENTRE 18 Y 35 AÑOS EN EL MUNICIPIO DE ZUMAIA, cuyo texto íntegro se adjunta como Anexo I. SEGUNDO.- Publicar el anuncio de la Aprobación Inicial de la Ordenanza en el BOG y someterla a exposición pública durante 30 días naturales. En caso de que no se hubiera presentado ninguna reclamación, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional.

Zumaia, 2025eko apirilaren 23an.

Iñaki Ostolaza Esnal

LURRALDEA batzorde informatzailearen BATZORDEBURUA

#### IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Bigarren puntua, Zumaiako herrian 18 eta 35 urte bitarteko adina duten gazteei etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko duen ordenantzaren aldaketaren hasierako onarpena. Alex komentatuko dugu.

#### ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ:

Bai, kasu honetan planteatzen dena da 18 eta 35 urte bitarteko adina duten gazteei etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko duen ordenantzaren aldaketei hasierako onarpena ematearena. Aldaketa teknikoa da, ez? Azkenean konturatu izan gara diru-laguntza hauek kudeatzeko garaian zailtasunak eragiten ditu hainbat eta hainbat informazio eskatzea rena, lortzearena unean eta hortaz logikoa ikusi da beste hainbat dokumenturekin egiten dugun moduan, kasu honetan er, ba pertsona fisikoen errentaren aitortpena NISAE bidez jasotzeko aukera egotearena. Noski, herritarren baimenarekin. Baina bide horretan, ba bueno, herritarrari beste dokumentu bat aurkeztu behar izatearena ekiditzen diogu eta administrazioak berak dokumentazio guzti hori lortzeko aukera izango luke. Horretarako, egin behar dutena da ordenantzaren aldaketa eta zehazki zortzigarren artikulua aldatzea planteatzen da. Eta zentzu horretan, hau da, bertan aipatzen den informazio hori udalak berak eskuratzea. Ez dauka besterik. Berrito ere hasierako onarpena



eman behar zaio ordenantza bat denez eta 30 eguneko epea eta aurrekoaren tramitazio bera izango du.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Eskerrik asko, Alex. Zerbait komentatzeko? Ez, ezta? Bozkatzea pasako gea. Aldeko bozka?

**Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ/PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

ZUMAIAKO HERRIAN 18 ETA 35 URTE BITARTEKO ADINA DUTEN GAZTEEI ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETEI HASIERAKO ONARPENA EMATEA onartzea

### **2.3.- ZUMAIAKO HERRIAN 36 URTETIK GORAKO PERTSONEI ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN HARTZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.**

**2025EKO APIRILAREN 23KO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO HERRIAN 36 URTETIK GORAKO PERTSONEI ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETEI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO**

**DICTAMEN DE LA COMISIÓN DE LA ORDENANCIÓN DEL TERRITORIO DE 23 DE ABRIL DE 2025 SOBRE LA APROBACIÓN INICIAL DE LAS MODIFICACIONES DE LA ORDENANZA REGULADORA POR LAS QUE SE ESTABLECE LA CONCESIÓN DE AYUDAS PARA EL ALQUILER DE VIVIENDA A LAS PERSONAS MAYORES DE 36 AÑOS EN EL MUNICIPIO DE ZUMAIA.**

#### **AURREKARIAK**

1.- 2020. urtean, Zumaiako Udalak 36 urtetik gorako pertsoneri etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak emateko ordenantzari lehenengo onarpena eman zion. Ordudanik, hainbat aldaketa egin dira diru-laguntza horien araubidean.

#### **ANTECEDENTES**

1.- En el año 2020, el Ayuntamiento de Zumaia aprobó la primera ordenanza reguladora de la ayudas para el alquiler a personas mayores de 36 años. Desde entonces, se han introducido diversas modificaciones en el régimen de estas subvenciones.



2.- 2024ean hainbat aldaketa txertatu ziren ordenantzan. Horien artean, Pertsona Fisikoen Errenta Aitorpena NISAE bidez eskuratzea txertatzearena.

3.- Ikusi da, NISAE bidez beste hainbat informazio eskuratzeak ere, bai herritarrentzat bai Zumaiako Udalarentzat, laguntza hauen eskaerak aurkezteko eta eskaerak kudeatzeko erraztasuna eragin dezakeela.

4. Ondorioz, 8. Artikulua aldatzea proposatzen da.

2.- En el año 2024 se introdujeron diversas modificaciones en la ordenanza. Entre ellos, el de incluir la obtención de la Declaración de la Renta de las Personas Físicas a través de NISAE.

3.- Se ha observado que la obtención de otra información a través de NISAE, puede facilitar la presentación de las solicitudes y la gestión de dichas solicitudes, tanto para la ciudadanía como para el Ayuntamiento de Zumaiia,

4. En consecuencia, se propone modificar el artículo 8.

#### IRIZPENA

Ondorioz, 2024ko apirilaren 23ko Lurraldea Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: 6 (EH BILDU 2, EAJ-PNV 3, PSE 1)

Aurka:

Abstentzioa:

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

LEHENA.- ZUMAIKO HERRIAN 36 URTETIK GORAKO PERTSONEI ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZAREN, - zeinaren testu osoa I Eranskin gisa txertatzen den- aldaketari hasierako onespena ematea.

#### DICTAMEN

En consecuencia la Comisión Informativa de "Lurraldea" de fecha 23 de abril de 2024 tras la siguiente votación:

A favor: 6 (EH BILDU 2, EAJ-PNV 3, PSE 1)

En contra:

Abstención:

Acuerda ESTIMAR el presente dictamen de conformidad al artículo 135.3 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, y someterlo si procede a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá adoptar el acuerdo con el quórum de la mayoría simple de sus miembros presentes establecido en el art. 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, la siguiente PROPUESTA:

PRIMERO.-. Aprobar inicialmente la modificación de la ORDENANZA REGULADORA POR LAS QUE SE ESTABLECE LA CONCESIÓN DE AYUDAS PARA EL ALQUILER DE VIVIENDA A LAS PERSONAS MAYORES DE 36 AÑOS EN EL MUNICIPIO DE ZUMAIIA, cuyo texto íntegro se adjunta como Anexo I.



**BIGARRENGOA:** Ordenantzaren hasierako onespeneraren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Erreklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

**SEGUNDO.-** Publicar el anuncio de la Aprobación Inicial de la Ordenanza en el BOG y someterla a exposición pública durante 30 días naturales. En caso de que no se hubiera presentado ninguna reclamación, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces provisional.

Zumaia, 2025eko apirilaren 23an.  
Iñaki Ostolaza Esnal  
LURRALDEA batzorde informatzailearen BATZORDEBURUA

**IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:**

Hirugarrena. Zumaiako herrian 36 urtetik gorako pertsoneri etxebizitzak alokairuan hartzeko diru laguntzak ematea arautuko duen ordenantzaren aldaketaren behin betiko onarpena. Alex.

**ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ:**

Kasu honetan berdina da, baina beste diru-laguntza mota bat. Kasu honetan da 36 urtetik gorako pertsoneri etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak arautzen duen ordenantza aldatzea eta helburu berarekin. Ez dauka besterik.

**IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:**

Bozkatu eingo dugu orduan.

**Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ/PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:**

ZUMAIAKO HERRIAN 36 URTETIK GORAKO PERTSONEIRI ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETEIRI HASIERAKO ONARPENA EMATEA onartzea.



### 3.- PROPOSAMENA

**3.1.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO ORGANOAREN TITULARRAREN 2025EKO MARTXOAREN 28KO EB 2024/195 EBAZPEN GAUZATZEKO ERABAKI PROPOSAMENA. EBAZPEN HORREN BIDEZ, SERBITZU ELKARTEA SL ENPRESAK ZUMAIACO KALE GARBIKETA ZERBITZUA XEDE DUEN KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PROZEDURAN AURKEZTUTAKO KONTRATAZIO-ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA EBAZTEN DA.**

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Hurrengo puntua da proposamena. Beraz, lehendabizikoz ingo duguna da bozkatu proposamen bezala ekartzeko Osoko Bilkurara.

**Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU, 6 EAJ/PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL:

Beraz, orain landuko dugu puntu hau. Azalduko diguzu pixkat, Alex?

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KONTRATUEN INGURUKO ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO ORGANOAREN TITULARRAREN 2025EKO MARTXOAREN 28KO EB 2024/195 EBAZPEN GAUZATZEKO ERABAKI PROPOSAMENA. EBAZPEN HORREN BIDEZ, SERBITZU ELKARTEA SL ENPRESAK ZUMAIACO KALE GARBIKETA ZERBITZUA XEDE DUEN KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PROZEDURAN AURKEZTUTAKO KONTRATAZIO-ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA EBAZTEN DA.

PROPUESTA DE ACUERDO PARA LA EJECUCIÓN DE LA RESOLUCIÓN EB 2024/195, DE 28 DE MARZO DE 2025, DEL TITULAR DEL ÓRGANO ADMINISTRATIVO DE RECURSOS CONTRACTUALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI, QUE RESUELVE EL RECURSO ESPECIAL EN MATERIA DE CONTRATACIÓN INTERPUESTO POR SERBITZU ELKARTEA S.L. EN EL PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO QUE TIENE POR OBJETO "SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA DE ZUMAIA"

#### AURREKARIAK

**LEHENA.-** Udaltzaren Osoko bilkurak 2024ko irailaren 26ko erabaki bidez egindako eskuordetzaren baitan, 2024ko azaroaren 18ko 1360/2024 Alkate Dekretu bidez, Zumaia kale garbiketa zerbitzu kontratua TRAEKO MEDIOAMBIENTAL S.L. enpresari adjudikatu zitzaion.

#### ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.** Por Decreto de Alcaldía 1360/2024 de 18 de octubre, actuando por delegación efectuada mediante acuerdo del Pleno de la corporación de fecha 26 de septiembre de 2024, se adjudicó el contrato del servicio de limpieza viaria de Zumaia a TRAEKO MEDIOAMBIENTAL S.L.



**BIGARRENA.-** 2024ko azaroaren 11n, SERBITZU ELKARTEA S.L. enpresak kontratazioaren arloko errekurtsu berezia jarri zuen adjudikazio-erabakiaren aurka.

**HIRUGARRENA.-** 2025eko martxoaren 31n, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren (aurrerantzean, KEAO) titularren 2025eko martxoaren 28ko EB 2024/195 Ebazpena jaso zen udal honetan. Ebazpen horren bidez, SERBITZU ELKARTEA SLk «Zumaia kale garbiketa zerbitzua» xede duen kontratua adjudikatzen prozeduran aurkeztutako kontratazio-arloko errekurtsu berezia ebatzi zen. Ebazpenaren lehenengo apartatuak honako hau dio:

“PRIMERO: Estimar parcialmente el recurso especial en materia de contratación interpuesto por SERBITZU ELKARTEA, S.L., contra la adjudicación del contrato “Servicio de limpieza viaria de Zumaia”, tramitado por el Ayuntamiento de Zumaia, en el sentido de:

- Anular el acto impugnado.
- Ordenar la retroacción de actuaciones para que el poder adjudicador requiera la subsanación de los defectos señalados en los números 1) y 2) del epígrafe a.2) del Fundamento jurídico noveno de la presente Resolución.”

**LAUGARRENA.-** Apirilaren 2an, Zumaia Udalak ebazpena argitzeko eskaera bidali zion KEAOri.

**BOSGARRENA.-** 2025eko apirilaren 15ean eskatutako azalpena jaso zen (apirilaren 15eko A004/2025 Ebazpena).

Aurreko guztia kontuan hartuta eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 175. artikulua ezarritakoarekin

**SEGUNDO.** El 11 de noviembre de 2024, la empresa SERBITZU ELKARTEA S.L. interpuso recurso especial en materia de contratación contra el acuerdo de adjudicación.

**TERCERO.** Con fecha 31 de marzo de 2025 se recibe en este Ayuntamiento la Resolución EB 2024/195, de 28 de marzo de 2025, del titular del Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi (en adelante OARC), que resuelve el recurso especial en materia de contratación interpuesto por SERBITZU ELKARTEA S.L. en el procedimiento de adjudicación del contrato que tiene por objeto “Servicio de limpieza viaria de Zumaia”, cuya parte resolutive en el apartado primero dice:

“PRIMERO: Estimar parcialmente el recurso especial en materia de contratación interpuesto por SERBITZU ELKARTEA, S.L., contra la adjudicación del contrato “Servicio de limpieza viaria de Zumaia”, tramitado por el Ayuntamiento de Zumaia, en el sentido de:

- Anular el acto impugnado.
- Ordenar la retroacción de actuaciones para que el poder adjudicador requiera la subsanación de los defectos señalados en los números 1) y 2) del epígrafe a.2) del Fundamento jurídico noveno de la presente Resolución.”

**CUARTO.-** Con fecha 2 de abril se envió al OARC por parte del Ayuntamiento de Zumaia solicitud de aclaración de la resolución.

**QUINTO.-** Con fecha 15 de abril de 2025, se recibió la aclaración solicitada (Resolución A004/2025, de 15 de abril).

Por cuanto antecede, y de conformidad con lo establecido en el artículo 175 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, el que suscribe eleva la



bat etorrita, behean sinatzen duenak honako ERABAKI-proposamen hau igortzen du:

siguiente propuesta de ACUERDO:

### ERABAKI PROPOSAMENA

### PROPUESTA DE ACUERDO

**LEHENENA.** Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuaren inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren titularraren 2025eko martxoaren 28ko EB 2024/195 Ebazpena betetzea, eta, beraz, baliogabetzat jotzea urriaren 18ko 1360/2024 Alkate Dekretua, Zumaia kale garbiketa zerbitzuaren kontratua TRAECO MEDIOAMBIENTAL SLri adjudikatzea ebatzi zuena.

**PRIMERO.** Dar cumplimiento a la Resolución EB 2024/195, de 28 de marzo de 2025, del titular del Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y dar por anulada, por tanto, el Decreto de Alcaldía 1360/2024 de 18 de octubre, por el que se resolvió adjudicar el contrato del servicio de limpieza viaria de Zumaia a TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L.

**BIGARRENA.** Jarduketan atzeraeragina onartzea eta zerbitzu eskudunei agintzea TRAECO MEDIOAMBIENTAL SLri akatsak zuzentzeko eska diezaioten eta, hiru egun balioduneko epean, honako dokumentu hauek aurkez ditzan:

**SEGUNDO.** Aprobar la retroacción de actuaciones y ordenar a los servicios competentes para que requieran a TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L. la subsanación de los defectos y presente, en el plazo de tres días hábiles, los siguientes documentos:

➤ Zerbitzuaren arduradun edo enkargatuari dagokionez honako hauek egiaztatzen dituzten agiriak:

- Antzeko lanpostu batean bost urteko esperientzia.
- Ikasketak euskaraz egin izana.

➤ En cuanto al responsable del servicio o encargado, documentos que acrediten:

- Los cinco años de experiencia en un puesto similar.
- Que sus estudios se realizaran en euskera.

➤ Peoiei dagokionez (garbitzaileak, makinistak eta gidariak), subrogatuko direnen kasuan izan ezik, honako hauek egiaztatzen dituzten agiriak:

- B1 edo C1 gida baimena dutela (makinista eta gidariak).
- Hizkuntza eskakizunari dagokionez, Europako Erreferentzia Markoaren B1 gaitasun maila dutela (oinarrizko ikasketak euskaraz izatea onartuko da). Pertsona horien hizkuntza maila agiri bidez egiaztatzerik ez balego, Udalak aldeaz aurretik elkarrizketa edo proba batzuk

➤ En cuanto a los peones (limpiadores, maquinistas y conductores), salvo de aquellos que vayan a ser subrogados, los documentos que acrediten:

- Disponer del carné de conducir B1 o C1 (maquinistas y conductores).
- En cuanto a requisitos lingüísticos, el cumplimiento del nivel de competencia B1 del Marco Europeo de Referencia, a nivel oral (se aceptarán los estudios básicos en ESO o FP en euskera). En el caso de que no se pueda acreditar el nivel del requisito lingüístico con documentos, el ayuntamiento



egino ditu, hala balegokio langileei oniritzia emateko.

**HIRUGARRENA.** Kontratua adjudikatze eskumena alkateari eskuordetzea, proposatutako lizitatuak nahitaezko dokumentazioa aurkeztu eta idazkaritzak proposamen-txostena egin ondoren.

**LAUGARRENA.** Erabaki honen berri ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoari.

realizará entrevistas o pruebas a esas personas para darles su aprobación.

**TERCERO.** Delegar en el Alcalde la competencia para la adjudicación del contrato, una vez que la licitadora propuesta presente la documentación preceptiva y se emita Informe-propuesta por Secretaría.

**CUARTO.-** Dar cuenta del presente acuerdo al Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO

ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ:

Bai, kasu honetan, bueno hor aurrekari guztietan uste dut dena oso argi agertzen dela. Baina bueno, gogoratu udalbatzaren Osoko Bilkuran 2024ko irailaren 26an, erabaki zuen hurrenkeraren arabera eta gero Alkateari eskuordetza emandako eskuordetzearen baitan baitan, Alkate dekretu bidez erabaki zan Zumaia kale garbiketa zerbitzu kontratuak Traeco medioambiel S.L. enpresari adjudikatzea, bai? Beste enpresak, Serbitzu elkarteak kontratazioko errekurtsu berezia aurkeztu zuen eta bueno pues ebazpena etorri zitzaigun martxoaren 31n. Bertan, ebazpen horretan, gazteleraz dago, planteatzen zuena, administrazio zera, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratuen inguruko errekurtsuen administrazio organoak erabaki zuen:

